

Hor konpon txikien txokoa



KOBAZULOAK

Kobazuloa

Kobazulo honetara sartzeko 5 m. gutxi gora-behera jeitsi behar dira, eskailera batzutatik.

Kobazuloak; zulo handi batzu dira, eta arrokak dituzten arrakaletatik ura sartzen da. Urak daraman indarraren bidez, zulo bat sortzen da. Zulo handi honi, kobazulo izena ematen zaio.

Estalaktita eta estalagmitak

Urak duen kaltzio karbonatua, kobazuloaren sabaian dago. Sabaian dagoen kaltzio karbonatu pixkat sabain gelditzen da, eta bestea lurrunutz dihoa. Sabaian dagoen kaltzio karbonatua gogortzen dihoa, eta honela, estalaktitak sortzen dira. Lurrean da-

goen kaltzio karbonatuarekin, berbera gertatzen da; hau da; gogortu egiten da, baino oraingoan ez dira estalaktitak sortzen, estalagmitak baizik.

Aintzirak

Aintziretako ura, epela da; arrokak ura epeltzen bait dute. Kobazulo honen azken zatian, aintzira handi bat dago, hauen erdian, gutxi gohora behera, 25 m. kubrituko du. Ura ez da edangarria. Ez dago arrainik, eta egongo baziren, gorputza burua baino txikiagoa eukiko zuten, eta itsuak izango ziren.

Hemengo ura gehitu edo gutxitu daiteke (euriaren araueran). Itsasotik 600 metrotako altitueda du.

Aralar-en erortzen diren euriteak honera datoz, eta gero Mediterraneoan itsasoratzen dira.

FOZ DE ARBAIUN

Arbaiun, mendilepo bat da Nafarroan aurkitzen dena. Gertuen dauden herriak Usun, Biguezal eta Domeño dira.

Barrenaldea 385 metro ditu, eta luzera 6 kilometro. Salazar ibaia zeharkatzen du. Bere hormak kalizakoak dira, eta kanpoaldean landaretza desberdina du, adibidez: ezpel asko, kejigoak, bagoaldiak eta pinudiak. Barrualdean berriz, kejigoak, bagoak, eta sahotsak daude. Hormen zuloetan putreak bizi dira zeruan hegan egiten dutela paseotxo bat emateko. Baita ere arranoak, saizuriak, basurdeak eta axeriak.

Baina jeisterakoan beldur pixka bat genuen baina beno... Kanoa puztu eta ibaiaren bera joan ginen. Batzutan eserita gindoazen eta beste askotan zutik. Toki lasaietan bainuan hartzen genituen eta behar bada kanoa bultza.

Uretatik ikusten genuen nola potreak hegan egiten zuten. Goiz erdian hamaiketako txiki bat hartzeko txabola batean gelditu ginen, gero aurrera jarraitzeko lasaiago eta animo gehiagoarekin.

Kanoa pintxatua zegoenez bidean zehar zenbait aldiz gelditu ginen puzteko eta ura kentzeko, toki lasaietan arraun egin behan genuen baina ur jauzik pasatzerakoan baka-rik uzten genuen edo bestela erremoa jartzen genuen harrien aurkia ez joateko. Urean zeuden arrainak ikusten ziren, hartzen saiatu ginen baina ez genuen lortu ezta bat hartzea. Ur jauzietan belaunetan mina hartzen genuen harriekin eta ere bai gauzak galdu, baina gero aurkitzen genituen. Ur jauzi batzuetan gelditu egiten ginen eta gero ateratzeko gorriak ikusten genituen.

Ander flotadorearekin zihoan igeri egiten ez zekielako, gainera hotz asko pasatzen zuen eta gu erremoarekin zirikatzeke busti egiten genuen.

Pelikula bat ere egin genuen eta asko kostatu zitzaigun, ibaia hiru edo lau aldiz jeitsi genuen, kanoari ura kendu behan genioenez ere denbora galtzen genuen. Uretara asko ergatzen ginen baina eguraldi ona zegoen eta ez genuen hotza asko pasatzen. Ander bai goian ezan dugun bezala.

Foz de Arbaiun oso interesgarria da, dituen animalengatik eta oso atsegina duen ibaiarengatik.





David Hernandez Argazkiak

«PEÑA BLANCA» MENDIA

Zurriola ikastolako kanpamentua Sallent herriko inguruetan zegoen.

Sallent herri polita da; teilatua teila urdinez orniturik dauzka, herriko plazan iturri eder bat dago bere inguruan souvenirseko denda batzu.

Kanpamentuaren lekua ederra zen; mendi batzuen maldan eta ondoan erreka bat zuen «Aguas Limpias» izenekoa. «La Sarra» antziratik minutu batzuetara dago.

Abuztuak bian ibilialdi bat egin genuen «Peña Blanca» mendiruntz joateko. Zazpiretan esnatu eta zortziretako bidean ginen.

Maisuek esan zigutenez, lehendabizi Panticososa herrira joan eta handik «Lago de los asnos» aldera igo behar genuen.

Bidean ordu bete ibili ondoren Sallent-era iritsi ginen eta handik ordu laurden batetara Lanuzako lakuaren aurrean ginen. Laku ez da oso handia eta bere uretatik zukaitzen adar batzu ateratzen dira.

Bero izugarria egiten zuen horregatik ez ginen Lanuzara laister iritsi. Lanuza herri huts bat da; jendeak hemendik alde egiteko arrazoia, lakuak lurra kendu zizkielako zen: soroak, basoak, ea.

Lanuza utzi eta ordu bete ibili ondoren Panticosara iritsi ginen. Hau nahiko herri polita da, Hotel eta turismo handia ditu eta bere inguruko mendietan eski egiteko pista asko.

Deskantsatu gabe telesila hartu eta han zegoen mendixka batetara igo ginen. Ondoren beste telesila bat hartu genuen. Oraingoak bidexka batetan utzi gintuen eta bide hortatik ibiltzen hasi ginen.

Beroa kiskalgarria zen baina hala ere laister iritsi ginen lakuetara. Oso politak ziren baina ura oso hotza zegoen.

Laku handiena zulo batetan dago. Urak leku batzuetan kolore berdea hartzen zuen, beste batzuetan urdin iluna eta bestetan urdin argia.

Han bazkaldu genuen eta Davidek (ibilaldiak antolatzen dituenak) ea «Peña Blanca» igo nahi genuen galdetu zigun.

Zazpi pertsona joan ginen. Oso aldapa gogorra zuen mendi harek, harri asko eta belar gutxi zegoen eta gainera bidea ez zen argi ikusten.

Aurrera gingoazela elurra puska handiak ikusi genituen eta haitz batzuen artean sarriok. Ikusgarriak ziren. Nik behin ere ez nituen ikusi.

Ondoren aldapa gogor batekin topatu ginen. Hau igo eta ia tontorrean geunden.

Luzea egin zitzaigun baina azkenean lortu genuen.

Tontorretik lagunak ikusten genituen lakuan; oso txikiak ikusten ziren. Mendi altu bat ere ikusi genuen (Anayet). Geroago beste ibilaldi bat egingo genuen eta hara joango ginela erabaki genuen, mendia asko gustatu bait zitzaigun.

Urrutian gure kanpamentua kokaturik zegoen lekua ikusten zen.

Gezurra zirudien zenbat ibili ginen egun hartan. Handik ikusi nituen mendiak nik ikusi ditudan haundienetakoak dira. Pirineoko beste lekuetan egon naiz eta ez ditut hain altuak ikusi.

Laster jetsi, telesila hartu eta Panticosara iritsi ginen. Gero autobusa hartu eta Sallent-era joan ginen.

Textos:

Mikel y Xabier Elizondo (12 a 14 años)
Ikastola de Zurriola